



2020ko HIRI KANPALDIRAKO PROTOKOLOA ARANGUREN IBARREKO UDALA

'Normaltasun berria' joan den ekainaren 21ean hasi eta osasun krisia bukatutzat jo arte egonen da indarrean; hau da, Covid-19 gaitzaren kontrako tratamendu edo txerto eraginkorra izan arte.

Ezin dugu ahaztu zer gertatu den azken hilabeteotan eta zer-nolako ahalegin handia egin dugun. Koronabirusak gure artean dirau eta hortxe dago kutsatzeko arriskua.

Horren ondorioz, eta egungo osasun egoera ikusirik, erabat garrantzitsua izanen da higiene eta segurtasun arloko protokoloak eta arauak ezartzea, gure Udako Hiri Kanpaldia gune segurua izan dadin 2020an, parte-hartzaile guztientzat.

Agiri honetan jasotzen ez den guztirako, indarreko araudiari lotuko zaio; horrenbestez, neurriak ere aldatzen ahalko dira.

Aranguren Ibarreko Gizarte Zerbitzuak betearazi egingen ditu Nafarroako Gobernutik jakinarazten dizkiguten osasun eta segurtasun neurri guztiak, bai eta kanpaldia egin bitartean ematen dituztenak ere.

1. MUSUKOAK:

Hiri Kanpaldian parte hartuko badu, haur bakoitzak musuko bat ekarriko du. Ahaztu edo hausten bazaio, Hiri Kanpaldian bat emanen zaio.

Parte-hartzaile bakoitzari gerriko poltsa bat emanen zaio, egun osoan jarrita izanen duena, musukoa eramateko.

Parte-hartzaileek nahiz monitoreek une jakin batzuetan jarri beharko dute musukoa. Hona hemen:

- Sarrera eta irteeretan
- Denontzako lekuetan ibiltzeko: geletan, jantokian, etab.
- Bainugelak erabiltzen direnean
- Gutxieneko segurtasun tartea (1,5 metro) bermatzerik ez dagoen bakoitzean.

Gomendagarria da oihalezko musuko garbigarri eta berrerabilgarriak erabiltzea.

2. ESPAZIOAK:



Ahal den guztietan, aire zabaleko espazioak erabiliko dira jarduerak egiteko. Ahal den heinean, ez da kontaktu fisikorik izanen jardueretan.

Jarduerak geletan egiten badira, honako baldintza hauek beteko dira:

- Talde bakoitzak bere gela izanen du erabiltzeko, eta ez du beste inork erabiliko.
- Leku hori behar bezala desinfektaturik egonen da. Egun berean, gelan jarduera bat baino gehiago egiten bada, jardueren artean ere desinfektatuko da. Gelak desinfektatuta egonen dira, eta honakoak izanen dituzte: papera, gel desinfektatzailea, eta kutxa huts bat, erabiltzen diren gauzak bertan utzi eta desinfektatzeko.
- Gainera, gela bakoitzeko leihoak zabalik egonen dira, barnealdea ongi aireztatuko dela ziurtatzeko. Halaber, gelako atek zabalik egotea sustatuko da gainazal komunak ez ukitzeko.
- Parte-hartzaile bakoitzari aulki bat eta mahai bat emanen zaizkio, berak soilik erabil ditzan. Mahaien arteko tartea gutxienez 1,5 metrokoa izanen da.
- Patiotik eraikinerako sarbideetan kontakturik eta jende pilaketarik ez izateko, atek eta eskailera-tarteak taldeen arabera banatuko dira, ahal den neurrian kontakturik batere ez izateko eremu komunetan.
- Komunei dagokionez, gehienez bi pertsonak erabiliko dituzte batera eta aldian-aldian desinfektatuko dira.

Jarduerak kanpoaldean egiten direnean, segurtasunez egiteko moduan diseinatuko dira parte-hartzaile guztientzat, eta jolasetan pausaldiak egiten dira aldian-aldian erabilitako materialak desinfektatzeko, bai eta hasieran edo bukaeran ere.

Egoerak aukera ematen badu, uretako jarduerak egiten dira; beraz, haur bakoitzak bainujantzia, eskuoihala, txankletak eta beste arropa bat eraman behar ditu kanpaldira. Crema etxean emanen zaie, neurri gabeko kontakturik ez izateko.

Parte-hartzaileen izena markatu beharko da haien gauza guztietan eta arropan. Ez da kanpaldira ekartzetik izanen behar ez den jolasik edo/eta materialik.

Igerilekuetako bainua osasun arloko agintariak eta/edo Aranguren Ibarreko Udaleko protokoloak adierazten duten moduan egin beharko da.



Hamaiketakoa aire zabalean hartuko da. Bidoi bana emanen zaie parte-hartzaileei ura eramateko. Haurren izena markatuko zaio, eta haur horrek besterik ez du erabiliko kanpaldiaren aste osoan.

3. ESKUEN DESINFEKZIOA:

Eskuak Hiri Kanpaldian sartzean eta ateratzean desinfektatuko dira, bai eta jardueraz aldatzen den bakoitzean ere, eta haurra bazkaltzera gelditzen bada, bazkal aurretik eta ondotik (espazio bakoitzak bere hidroalkohola izanen du).

Monitore bakoitzak gel desinfektatzailea eta/edo eskuetako xaboia izanen du desinfektatzeko.

Egunean zehar, eta jardueraz aldatzean, parte-hartzaileek eta monitoreek, eskuak desinfektatuko dituzte, gel desinfektatzailea erabiliz, eta egunean behin, gutxienez, krema emanen dute narritadurak eta zauriak eragozteko.

Era berean, **aste bakoitzeko astelehen bakoitzean**, Kanpaldiaren hasieran, hitzaldi bat emanen zaie haurrei segurtasun eta higiene neurriak bete beharraz. Era berean, astean egiten duten jarduera bakoitzari buruzko informazioa emanen zaie.

Pertsona bat arduratuko da Hiri Kanpaldian jardueren inguruko higieneaz eta prebentzioaz. Beharrezkoa den materiala eskura egoteaz arduratuko da, bai eta prozedurak gainbegiratzeaz ere.

Mezu eta kartel gehiago paratuko dira, segurtasun arloko portaerak eta tarteak, higiene neurriak, etab. oroitarazteko.

4. TALDEEN ANTOLAKETA:

Behin izen-emate eta matrikulazio epea bukatu, haurrak taldeetan banatuko dira. Gehienez, 9 haur talde bakoitzean, kasuan kasuko monitoreak lagundurik. Aipatu banaketa ahalik eta erarik homogeneoan egingen da.

5. JANTOKI ZERBITZUA:

Jantoki zerbitzua erabiltzea eskatu duten parte-hartzaileek ontzi hermetikoetan ekarriko dute janaria (ahal bada, haur bakoitzak ontzi bakar bat). Ez da mahai-tresnarik ekarri beharrik. Janaria berotzen ahalko da.



Ontziak haurraren izena eramanen du. Kanpaldira iristean, monitoreari emanen dio, eta monitoreak uneoro bermatuko du higiene eta prebentzio neurrien betekizuna, bai manipulazioan bai hozkailu barneko kontserbazioan.

Jantoki-zerbitzua egiteko, kontuan hartuko dugu:

1. Aurrez: parte-hartzaileek komunera joateko aukera izanen dute eta eskuak desinfektatuko dituzte.
2. Bitartean: jantokian sartuko dira. Mahaien artean, 1,5 metroko tartea egonen da. Parte-hartzaile bakoitzari bere ontzia emanen zaio eta, egunero, mahai-tresnak, erabilera bakarrekoak.
3. Bukaeran: haur bakoitzak janari hondarrak eta mahai-tresnak edukiontzira eramanen ditu; gero, eskuak desinfektatuko ditu eta prestatuko da bere bila joaten direnerako, edo bestela, kanpaldian segituko du haren bila etorri arte.

6. SARRERAKO ETA IRTEERAKO PROTOKOLOA:

Mutiloako San Pedro Ikastetxe Publikoko hiru ateak erabiliko dira kanpaldian sartzeko eta ateratzeko: nagusia, patiokoa eta portxekoa. Horrela, familiak ez dira une zehatz horietan bilduko.

Heldu bakar bat joan dadila familia bakoitzeko sarrera/irteera bakoitzera. Musukoa erabili eta gutxieneko segurtasun tartea (1,5 metro) errespetatu beharko da, eta haurrak baizik ez dira ikastetxe barnera sartuko.

Kanpaldian sartu eta ateratzeko ordutegiak errespetatuko dira, bai eta horretarako ezarri diren sarrera eta irteera bideak ere.

Familiei pazientzia eta elkarlana eskatuko zaizkie, parte-hartzaileen eta monitoreen segurtasuna ziurtatzeko.

Mailaka sartzen ahalko da zerbitzuan, **9:00ak arte**. Behin ordutegi hori pasatzean, ate nagusia ireki arte egon beharko dute zain.

Barrutian sartzeko ate nagusia itxita egonen da kanpaldia egiten den bitartean. Haur batek ordutegitik kanpo sartu behar badu, kanpaldiaren koordinatzaile baten telefono zenbakia emanen zaio.

Sarrera/irteerako edozein unetan, haur guztiek oinetakoak desinfektatuko dituzte, desinfekzio-alfonbrak erabiliz, eta eskuak gel desinfektatzailearekin garbituko dituzte; musukoa jarrita eramanen dute.



Irteera/sarreretakako itxaron lekua berbera izanen da talde bakoitzerako, prozesu hori arintzeko.

Irteeretan, koordinatzaileak egiaztatuko du haurraren bila joaten den pertsona baimendua dagoela. Bestela, telefonoz deituko zaio aita/ama/tutoreari. Prozesua arintze aldera, gomendagarria da haurraren bila joaten denak aita/ama/tutorearen baimen idatzia eramatea gainean, aurrez baimendua izan ez bada.

Osasun arauak halaxe adierazten badu, monitore eta parte-hartzaile guztiei edozein unetan hartuko zaie tenperatura egunero sarreran/irteeran.

7. JARDUKETA PROTOKOLOA, GAIXOTASUNIK BADA:

a) Hurrek ez dute hiri kanpaldian parte hartzerik izanen, baldin eta:

- COVID-19ri lotuta egon daitekeen edozein sintomarik badu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.).
- kontaktu estuan edo leku berean egon bada, behar diren neurriak bete gabe, COVID-19 gaitzak jotako pertsona batekin, azken 14 egunetako batean.

b) Transmisioa prebenitzeko neurriak:

- Parte-hartzaileek beren egoeraz arduratu beharko dute koronabirusaren aurka; horrela, haur batek COVID-19ri lotutako sintomatologiarik badu, ez da kanpaldira joanen eta jardueraren koordinatzaileari deituko dio telefonoz 607 92 26 34 zenbakira eta mezua bidaliko dio Udaleko teknikariari rgarralda@aranguren.es, edo, bestela, telefonoz deitu 948 151382 zenbakira.
- Jardueraren arduradunek jarduera segurtasunez egitea begiratuko dute, parte-hartzaileen tenperatura instalazioen sarreran/irteeran kontrolatuz eta ezarri diren protokolo eta arau guztiak egokiro betez.

c) Nola jokatu, instalazioetan COVID-19a duen kasu bat dagoelako susmoa baldin badago:



- Susmatzen bada COVID 19 gaitzak monitore edo parte-hartzaile bat kutsatu ahal izan duela, hona zer protokolori jarraituko zaion, Mutiloako Osasun Etxearen arabera: aipatu pertsona isolamendura eramanen da, musukoa jarrita, horretarako moldatu den eremura, heldu batek lagunduta, segurtasun tarteak gordeta eta leihoa zabalik utzita.

Pertsona adingabea bada, aitari/amari edo legezko tutoreari deituko zaio, haurraren bila joan dadin.

Adinez nagusia bada, bere etxera joanen da, garraio publikoa erabili gabe eta etxean isolatuko da.

Ondoren, gurasoak edo legezko tutoreak edo adin nagusia beren Osasun Etxearekin jarriko dira harremanetan.

- Covid-19ak kutsatuta dagoela baieztatzen bada, osasun zerbitzuen gomendioak beteko dira une oro, haiekin koordinaturik jokatu da eta jarduerak bertan behera utziko dira, xede hauekin:

- Parte-hartzaileak isolatzeko (haurrak eta monitoreak)

- Familiei egoeraren eta hartutako neurrien berri emateko.

- Jarduera bertan behera uzteko.

- Haurren bila joateko, osasun agintariek gomendatutakoarekin bat.

- Instalazioak epe laburrean ixteko, sakon garbitu eta desinfektatzeko, eta hurrengo asteko taldeentzako prest uzteko.

- COVID-19 dagoenik **baztertzen** bada, osasun agintariek eta familiekin adostutako protokoloa beteko da, beste edozein gaixotasunekin bezala.

Uneoro, pertsona kutsatuaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna zainduko dira.

Nolanahi ere, beti beteko dira Osasun Publikoak jarduera bertan behera uztearen inguruan emaniko oharrak eta jarraibideak. Jarduera bertan behera utzi behar bada, familiei jakinaraziko zaie.



8. FAMILIEKIN HARREMANETAN SARTZEKO PROTOKOLOA:

Jardueraren koordinatzaileak sarrera eta irteeretan egonen dira, familien zalantzak argitzeko edo galderei erantzuteko. Hala ere, pazientzia eskatzen zaie pertsona guztiei eta uler dezatela haurrak direla lehentasuna; beraz, denei eginen zaie arreta, baina parte-hartzaileen sarrera eta segurtasuna ziurtatutakoan.

Ez da inor barrutian sartuko, taldearen baimenik gabe; beharrezkoa bada, higiene kontrola nahitaez pasatu beharko da.

Haurrak barrutitik atera behar badu, aitak/amak/tutoreak sinatutako baimena ekarri beharko du, noiz eta zer ordutan atera behar duen adierazita.

Jende pilaketak eta behar ez diren kontaktuak eragozteko, zerbitzua kudeatzen duen enpresaren telefono zenbaki bat eta e-maila jarriko dira familien eskura: 607 922634 / pausoka@pausokaocio.com

Kontaktua Aranguren Ibarreko Gizarte Zerbitzuekin: 948151382
rgarralda@aranguren.es



1. ERANSKINA: PARTE HARTZEKO BALDINTZEN ONARPENA

2020ko HIRI KANPALDIA ARANGUREN IBARREKO UDALA

Izena: _____, NAN/NIE:
_____, neure izenean eta honako haur honen ama/aita/ tutore
gisa. Haurraren izena: _____

Nire erantzukizunpean adierazten dut idazpuruan agertzen diren datuak dituen pertsonak antolaketa horretan parte har dezala eskatzen dudala. Horretarako, zehatz-mehatz irakurri dut antolatzaileek berek emaniko informazioa eta parte hartzeko baldintzak onartzen ditud; halaber, nire konpromisoa adierazten dut bete beharreko higie eta prebentzio arloko neurriekin, eta nire gain hartzen dut COVID-19arekin kutsatzeko aukeraren erabateko erantzukizuna.

- Adierazten dut informazioa dudala ARANGURENGO UDALAREN 2020ko Hiri Kanpaldia COVID-19ra egokitzeko protokoloaz eta, horrenbestez, jakinaren gainean nagoela erabat eta ados nagoela proposatzen duen neurri eta prozedurekin.
- Adierazten dut, aurreko dokumentuan bildutako informazioa jaso eta arretaz irakurri ondoren, jakitun naizela zer-nolako arriskuak dituen nire seme-alabak ARANGURENGO UDALAREN 2020ko Hiri Kanpaldian parte hartzeak, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren testuinguruan, eta neure erantzukizunpean hartzen dudala.

Mutiloan, 2020ko aren(e)an

DATUEN BABESA

- **Tratamenduaren arduraduna:** Arangurengo Udala
- **Xedea:** Hiri kanpaldien kudeaketa egitea.
- **Eskubideak:** Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, udal bulegoetara posta honen bidez joz: dpd@aranguren.es.
- **Argibideak:** <http://www.aranguren.es/> webaren pribatutasun politika